



# Amalurra opor beharretan da

Ustiapen pedagogikoa

ENTZUMENA, IRAKURKETA eta IDAZKETA

*Garai batez egin daitekeen urraspidea*

URRASPIDEA

1. URRATSA: Entzumenetik abiatzea hiztegiaren ezagutzeko eta lantzeko
2. URRATSA: Prozesu artistikoaren ezagutzea eta irudimenaren garatzea
3. URRATSA: Testu baten idaztea

## 1. saioa: Primadera eta Uda

*Helburua: Ipuinaren ezagutzea eta ulertzea*

Primaderari eta udari dagozkien ipuin zatiak entzunen dira.

Entzuna ahoz aipatuko da, ulertua ez denaren argitzeko.

Irakasleak hitz ezezagunak arbelean idatziko ditu. Ikasleek hiztegitxoan

(errepertorioan) kopiatuko dituzte, eta buruz ikasiko. Ondotik, lan fitxa osatuko dute (ikus eranskina: Entzumena/Idazketa 1)

## 2. saioa: Udazkena eta Negua

1. saioaren lanaren segida dela ohartaraziko zaie ikasleei.

*Helburua: Ipuinaren ezagutzea eta ulertzea*

Udazkenari eta neguari dagozkien ipuin zatiak entzunen dira.

Entzuna ahoz aipatuko da, ulertua ez denaren argitzeko.

Irakasleak hitz ezezagunak arbelean idatziko ditu. Ikasleek hiztegitxoan

(errepertorioan) kopiatuko dituzte, eta buruz ikasiko. Ondotik, lan fitxa osatuko dute (ikus 2. eranskina)

## 3. saioa:

*Helburua: Obraren osotasunaren sentianaztea eta izendaraztea*

Obra osoa entzunen da, eta ikasleek taldeka zati bakoitzari eta obra osoari

dagozkien izenburuak asmatuko dituzte. Proposamenak bilduko dira, eta idazlearenak emanen, konparatzeko.

## 4. saioa:

*Helburua: hiztegiaren lantzea*

Ikasleek Primadera eta Uda zatiak entzunen dituzte, eta binaka:  
"Amalurraren aurkezpenean, naturari dagozkion hitzak xerkatuko dituzue, eta hitz jokoak aurkituko.  
Gauza bera egizue udaberriari dagozkion hitzak aurkituz."  
Proposamenak bilduko dituzte eta garbiki kopiatuko.

Amalurra: Polotik goiti, Ozeano Barea, mendikate, sumendi..

Udaberria: Prima eta Dera, apirileko ihintz ttinttak, pazko-liliak, xartalak, basamarrubiak

Uda: Luzatzen (egunak luze), Aguxtin gatua, oporrak, "farniente", larru beltza, mertxika, aranondoa, zomorroak, geranio, uzta

### 5. saioa: gauza bera udazkenaren eta neguaren kasuan

Udazkena: zurrumbilo, haizete, zirimola, ezkur, hosto ihar, gaztaina morkots, urtxintxa...

Negua: horma bezain hotz, estalagmita, zuri, zurrun, ekaitza, isiltasun izoztua, berunezko begirada...

## II. URRATSA

**Helburua: Prozesu artistikoari ohartzea**

### 1. Saioa: Prozesuaren aurkeztea.

Maddik testua eman zion Xanori; hark musika hau sortu zuen eta aktoreek testua irakurri.

Entzunen dugu.

Entzuteko, baldintza erosoak proposatu daitezke (lurrean etzanik, lumatxen gainean jarririk,...)

Ondotik, ikasleek entzun dutena ahoz aipatuko dute.

### 2. saioa: Musika batek inspiraturik, irudimenaren lantzea eta testu baten idaztea.

"Primadera" musika zatia entzunez, ikasleek marrazkiz adieraziko dute irudikatzen dutena.

"Ipuinaren musika zati bat entzunen duzue, testurik gabe. Ea zer irudikatzen duzuen. Marrazki bidez adieraz ezazue.

Bigarren entzunaldian, marrazkia aberats ezazue, xehetasun gehiago bilatuz."

Ikasle bakoitzak bere marrazkia taldeari azalduko dio ahoz.

## III. URRATSA

**Testu baten idaztea**

Aitzineko saioan ahoz sortu testua idatziz ezarriko dute ikasleek, nor berea edo beste batena.

# MUSIKA

## URRASPIDEA

I. URRATSA: Vivaldiren *Lau urtaroak* obraren ezagutzea

II. URRATSA: Xano Halsoueten obraren ezagutzea

III. URRATSA: Bi obren parekatzea (zer antzekotasun duten)

### I. URRATSA

#### 1. saioa: Vivaldiren *Lau urtaroak* entzutea

Antonio Vivaldi laburki aurkeztuko zaie ikasleei (garaian kokatu). Obra entzunaraziko zaie urtaroak nahasirik. Ikasleek asmatu beharko dute zein urtaro dagokion zati bakoitzari.

Ikasleek ikasgai ttipia kopiatuko dute, eta etxean ikasi (biografia laburra, obra...).

#### 2. saioa: Musika tresnen identifikatzea entzunez eta izendatzea.

Ikasleek orkestraren irudi bat ukanen dute, eta hartan gurutzea eginen dute entzuten dituzten tresnetan.

*Musika-tresnak* liburua (Ikas argitaletxea) erabil daiteke euskarri gisa, edo luzapenen egiteko.

Ikasleek igaila kolatuko dute eta etxean berrikusiko.

### II. URRATSA: Xano Halsoueten obraren ezagutzea

#### 1. saioa: Xanoren aurkezpen laburra.

Ipuinaren musika entzunaraziko zaie ikasleei (ber jokoa).

Xanori egiteko galdeketa prestatuko da idatziz, haren bisitaren prestatzeko (edo mezu elektronikoz igortzeko).

#### 2. saioa: Artistarekin elkartzea/haren ihardespenean irakurtzea.

Ikasleen artean bizpahiru argazkilari izendatuko dira, erakusketa baten apailatzeko. Galdeketa eginen zaio artistari.

### III. URRATSA

#### 1 saioa: Vivaldiren *Lau urtaroak* obrako eta *Amalurra opor beharretan da* obrako bi urtaroren parekatzea.

Ahoz: Zertan dira berdin/desberdin (erritmoa, indarra, musika tresnak...)

Sentimendu berak sentitu ote dituzue bi piezak entzunez?

Zein duzue gustukoena? Zeinek du zuen ustez urtaroa hobekienik adierazten?

Zergatik?

## 2. saioa: afixa batean bilduma orokorraren egitea ( Vivaldi, Xano, argazkiak, oharrak)

### **ARTE PLASTIKOA**

I. URRATSA: Vivaldiren *Lau urtaroak* obrak inspiratu lan plastikoaren sortzea

II. URRATSA: Xano Halsoueten obrak inspiratu lan plastikoaren sortzea

III. URRATSA: Urtarorik ez da gehiago!

Ikasleek irudimena lanean jarri beharko dute eta bosgarren urtaro bat sortu.

Teknika bat baino gehiago erabiliko dira: tindua, eskuzko tindua, marrazketa, ikatza, collagea...

### **ERAKUSKETA**

Ikastetxean, herrian, erakusketa munta liteke.

## ERANSKINAK

### IRAKURKETA/ IDAZKETA 1

Erantzun egokia ingura ezazu.

\* Polotik goiti nauzue

Ilargian naiz.  
Zinez aspertua naiz.  
Kontent naiz.

\*Itsasoan arbolak landatu

Alferrik lan egin.  
Baratzean lan egin.  
Txalupan ibili.

\*Zerua oskarbi dago

Zerua hodeiez betea da.  
Zerua izarrez betea da.  
Zeruan hodeirik ez da ageri.

\*Gatu berraragitu

Gatu bilakatu bigarren bizi batean.  
Gatuaren haragia jan.  
Gatu berria hartu.

\*Farnientearen erregina

Italiako erregina.  
Deusik egin gabe egotea gustuko duena.  
Gatuen erregina.

## ERANSKINAK

### IRAKURKETA/ IDAZKETA 2

Erantzun egokia ingura ezazu.

* Haizetea	Haize bortitza Haizegailua Haize arina
*Behaztopatu	Behatzak atzeman Trabukatu eta erori Ongi begiratu
*Bota gain azpiz ezarri	Bota oin azpian ezarri Bota petik gora ezarri Bota buru gainean ezarri
*Brastakoan	Emeki-emeki, kasu emanez Herrestan Kolpez, bat-batean
*Azen ontzeko	Gainera Azen landatzeko Eltzekariaren egiteko
*Putinka ari da.	Tipi-tapa ari da. Saltoka ari da. Dantzan ari da.